

**Io vanesa** *Aglais io* ▶

Beldarrak taldean bizi dira. Heldu fasean hibernatzen dute, harkaitz, enbor edo eraikin abandonatuen zirrikituetan. Hibernatu eta gero, otsaila-apirila bitartean, aurreko urteko aleak ikus ditzakegu.

ES *Pavo real* EN *Peacock*

*Urtica dioica*

UOMAMEUAIUAA ★★★★★



**Asunetako vanesa** ▶


*Aglais urticae*

Altuera guztietan topa dezakegu, nahiz eta ugariagoa izan abereak dauden mendi inguruan, asunak ugaritzea ahalbideratzen baitute. Heldu fasean igarotzen du negua.

ES *Ortiguera* EN *Small Tortoiseshell*

*Urtica dioica, U. urens*

UOMAMEUAIUAA ★★★★★



◀ **Atalanta vanesa**

*Vanessa atalanta*

Bere migrazio-gaitasuna dela medio, edonon aurki dezakegu, bere nutrizio-landarea dagoen lekuetan, batez ere. Larba fasean nahiz heldu fasean hibernatzen du, zirrikitu eta zuloetan gordeta, udaberriaren hasieran berriro agertuz.

ES *Atalanta* EN *Red Admiral*

*Urtica dioica, U. urens, Parietaria officinalis*

★★★★ UOMAMEUAIUAA




**C-zuria** *Polygonia c-album* ▲

Bere kolorazio kriptikoak, hosto lehor baten antzekoa, oharkabean pasatzen laguntzen dio. Helduek zuhaitz zirrikitu edo zuloetan hibernatzen dute, horregatik udaberri hasieran aleak ikusten hasi gaitezke. Lurralde menditsuetako baso hezeetan ugariagoa da.

ES *C-blanca* EN *Comma*

Asuna (*Urtica* spp.), lupulua (*Humulus lupulus*), zumarra (*Ulmus* spp.), sahatza (*Salix* spp.), andere-mahatsa (*Ribes* spp.), hurritza (*Corylus avellana*), urkia (*Betula pubescens*)

UOMAMEUAIUAA ★★★



▲ **Kardu-vanesa** *Vanessa cardui*

Europako hotza ezin du jasan, horregatik udazkenean Afrikara migratzen du. Udaberriro Andaluziako itsasertzeko eta Afrikako aleak itzultzen dira, gure lurrak berriro kolonizatuz.

ES *Cardera* EN *Painted Lady*

*Malva sylvestris, Cirsium* spp., *Carduus* spp., *Silybum marianum, Galactites tomentosus*, eta abar.

★★★★ UOMAMEUAIUAA



LANDA GIDA TXIKIA

Toni Llobet · Ruth Escobés eta Yeray Monasterio

# Euskal Herriko tximeletak

100 espezetik gora, arruntenak, ikusgarrienak eta esanguratsuenak





# Euskal Herriko tximeletak

Euskal Herrian, kantauriar, mediterraneo eta alpetar klimek bat egiten duten gunean, tximeleta aniztasun zabala duen habitat multzoa dago. Lur horietan penintsula iberiarrean dauden 237 espezetatik %80a baino gehiago bizi baita.

Tximeletak ikuskizun soil bat baino gehiago dira. Bere zeregin ekologikoa funtsezkoa da. Polinizatzaile garrantzitsuak izaki, loreak eta fruituak dituzten landareen ugalketan eragile apartak dira. Horrez gain, elikadura-katearen osagai-giltza dira, artropodoetatik hasi, eta hegazti, narrasti eta ugaztun txiki espezie askorentzako oinarrizko elikagai baitira.

Intsektu hauek ezagutzeko behaketa sakona eta argazkigintza dira, zalantzarik gabe, biderik zuzenenak. Teknika horiek bere portaera eta anatomia zehaztasunez behatzeko aukera eskaintzen digute, berauei inongo kalterik egin gabe, espezie ezberdinak zuzen bereizi ahal izatea bideratuz.

Gida honek gure inguruko 101 espeziaren selekzio bat biltzen du, bere hegaldi-epareen, zein altueratan dauden, bere bizilekuen eta beraien beldarren elikagai-landareen informazioa jasoz. Oro har, intsektu baliotsu hauen ezagutza eta mirespenaren hastapenean laguntzeko tresna izan nahi du.



Testu eta espezie selekzioa: Ruth Escobés eta Yeray Monasterio (ZERYNTHIA Elkarte).  
 Ilustrazioak: Toni Llobet  
 Diseinu grafikoa: Lluc Julià eta Toni Llobet  
 Maketazioa: Toni Llobet eta Clara Cortadelles  
 Itzulpena: Iñaki Mezquita  
 Lege-gordailua: DL T 296-2024

**NUTRIZIO-LANDAREAK** Tximeletak bertan arrautzak jarri eta tximeletaren larbek jaten dituztenak  
 Idazkera arruntaz: landare ezagunen izen arruntak  
 Idazkera etzanaz: izen zientifikoak

**FENOLOGIA** Urteko hegaldi epea

U Gehieneko ugaritasuna U Ugaritasun baxuena U Eza




**UGARITASUNA** Bere habitatean

★★★★ Oso arrunta ★★★ Arrunta ★★ Urria ★ Arraroa

## HABITATAK


-  **Harkaitz-itsasertza**
-  **Hezeguneak**, itsasertz-paduretatik mendi-urtegiataraino
-  **Herri eta hiriak**, mota guztietako gune urbanizatuak
-  **Harkaiztiak**, labarrak, harkaitzak, hartxingadiak...
-  **Belazeak**, belardi soiletatik hasi eta larre-alpetarreraino
-  **Sastrakak**, mediterraneo nahiz mendi-otalurrak
-  **Konifero-basoak**, pinu desberdinak: Aleppo pinua, Larizio pinua, pinazi pinua, itsas pinua...
-  **Hostogalkorrekoen basoak**, ameztietatik hasi eta harizti, pagadi eta ibaiertz basoetaraino
-  **Laborantzak**, landarediak nahiz zuhaitziak —arbolak, olibadia, mahastia...

## GARAIERA MAILA

-  Behe-mendia
-  Erdi-mailako mendia
-  Goi-mendia

**SEXUA** ♂ Arra ♀ Emea

## ESKALA


 Lamina bakoitzeko espezie guztiak gutxi gora behera eskala berean datoz, zirkulu batez ingurututa daudenean izan ezik.

Argitaratzailea:

**Lectio Ediciones**

Kolaboratzailea(k):

**aranzadi**  
zientzia elkarte



Thema: WNCN / 1DSE-ES-Q / 1DSE-ES-R



## PIERIDOAK

**Aza-tximeleta handia** ▲  
*Pieris brassicae*  
 Gure baratzetako ohiko espezie bat da, bere neurri handiagori esker beste "txuriengandik" bereiztu daiteke.  
 ES Blanca de la col  
 EN Large White  
 Brasikazeoak  
 UOMAMEUAIUAA ★★★★★

**Aurora zuria** ▲  
*Anthocharis cardamines*  
 Udaberri hasierako ohiko espeziea da, sexu-dimorfismoa oso nabaria da berarengan.  
 ES Aurora blanca  
 EN Orange-tip  
 Brasikazeoak  
 UOMAMEUAIUAA ★★★★★

**Aza-tximeleta** ▶  
*Pieris rapae*  
 Nekazal lurretan ugaria da, nahiz eta ia beste edozein habitat motatan aurkitu ahal izan.  
 ES Blanquita de la col  
 EN Small White  
 Brasikazeoak  
 UOMAMEUAIUAA ★★★★★

**Aza-tximeleta marrasendoa** ▲  
*Pieris napi*  
 Bere atzeko hegoen zainerian marrazki berdeska bat du, udako aleetan ez hain nabarmena.  
 ES Blanca verdinervada  
 EN Green-veined White  
 Brasikazeoak  
 UOMAMEUAIUAA ★★★★★

**Lerdena** ▶  
*Leptidea sinapis*  
 Bere itxura lirain eta hauskorraz beste pieridoengandik bereizi daiteke.  
 ES Esbelta común  
 EN Wood White  
 Lekadunak  
 UOMAMEUAIUAA ★★★★★

**Zuri-berdexka** ◀  
*Pontia daplidice*  
 Lurralde lehorrak nahiago ditu, baina inguru anitzera ondo egokitzen da, batez ere laborantza lurretara.  
 ES Blanquiverdosa  
 EN Bath White  
 Gurutzadunak  
 UOMAMEUAIUAA ★★★

**Zainbeltza** ▶  
*Aporia crataegi*  
 Geldirik nahasezina da. Hegan ordea *Parnassius apollo*-rekin nahas dezakegu.  
 ES Blanca del majuelo  
 EN Black-veined White  
*Prunus spinosa, Crataegus monogyna*  
 UOMAMEUAIUAA ★★★